

ErNE, ESAN, ELA, SIPE eta EUSPEL sindikatu erakundeek azken hilabeteotan Ertzaintzan jazo direnen inguruko balorazioa egin asmoz deitu zaituztegu prentsaurreko honetara. Bertan azalduko dizkizuegu, orobat, hemendik aurrera emango ditugun urratsak.

Hasteko eta behin, hemen gauden erakundeok deitutako protesta ekitaldiei eta mobilizazioei ertzainen gizataldeak egin dien jarraipenaren inguruan zinez balorazio baikorra adierazi nahi genuke. Adierazgarriak izan direlako, haietariko bi nabarmendu nahi ditugu. Haatik, ez bedi uler antolatu izan ditugun beste ekitaldiei baliorik batere kentzen diegunik.

- Martxoaren 10eko manifestazioa: 3000 ertzain baino gehiagok hartu zuen parte Bilboko manifestazio hartan, bertaratzeko modua izan zuten ia guztiek. Baliteke Ertzainen kidegoan inoiz burutu izan den manifestaziorik jendetsuena izatea. Horien guztien xedea zen, negoziazio kolektiboa errespetatu zedin aldarrikatzea eta murrizketa zein inposizio politikak arbuiatzea.
- Milaka ertzainek gutunez helarazi diote Sailburuari eta Urkullu Lehendakariari zenbateraino dauden aspertuta egungo egoerarekin. Mezu berean eskaera bat ere egiten zieten, alegia, benetako negoziazio prozesua has dadila, zeinetan negoziazio kolektiborako eskubidea bermatuko den, egindako murrizketak lehengoratuko diren eta Ortzimuga 2016 planaren antzekorik indarrez ezarriko ez den.

Puntu honetan, argi azaldu nahi genuke zenbateraino harritu eta sumindu gaituen Sailburuak nahiz Lehendakariak berak haien esku dauden bitarteko guztiak baliatuta gure kidegoak antolatutako mobilizazio eta protesta ekitaldiak geldiarazteko egin duten ahaleginak.

Alabaina, Ertzaintzan aurrekaririk ez duen mobilizazio hau ikusita, Segurtasun Sailak ezer gertatu ez bailitzan darrai. Sinatutako hitzarmenak sistematikoki urratzen jarraitzen du, negoziazio kolektiboa egiteko eskubidea ukatzen du eta orain hainbat urte hasi ziren murrizketak ezartzen darrai. Are auzitegiek aipatu murrizketak legez kontrakoak direla iritzi diotenean ere. Bestalde, bere horretan dirau Ortzimuga 2016 planaren ezarpen derrigortuak, zeinak, gure aburuz, ondorio kaltegarriak dakartzan nola Ertzainen kidegoarentzat, hala, oro har, gizartearentzat ere.

Egoera honen aurrean, hemen gauzkazuen sindikatuok zerak kezkatzen gaitu: Zer gehiago egin beharko dugu eta noiz arte jarraitu beharko dugu mobilizaziotan Sailak bere jarduna errotik alda dezan eta Ertzaintzako kideok

begirunez har gaitzan? Esan nahi baita, erdietsitako hitzarmenei eutsi diezaien eta negoziazio kolektiboari ekin. Ortzimuga 2016 planari dagokionez, hura bete dadin lanean arituko direnen ahotsa gutxienez entzun dezaten eskatzen diegu eta ondorioak negoziatzea ditzatela.

Egoeraren diagnosi hau aintzat hartuta, prentsaurreko honetan bildu garen Ertzaintzako sindikatuok mugagabeko greba deialdi baten berri eman beharko genizueke. Zoritxarrez, ordea, ertzainok oinarrizko eskubideak mugatuta ditugu eta greba ilegaltzat jo dezaten arriskuari so (zeinak kaltetutako kidegoari ondorio larriak leharzkiekeen), ordezko mobilizazio moduak bilatze beste aukerarik ez dugu izan egoerak erabat gogaituta gauzkala aditzera emateko.

Honen harira, uste sendo bat jendarteratu nahi genuke, hots, Sailaren jokabide immobilistaren eta gure kidegoarekiko gutxiespen jarreraren zioa, finean, oinarrizko greba eskubidea gauzatzeko ezarri zaigun ezintasunean datzala. Baina ezin horrek ez digu galaraziko geure helburua lortu arte mobilizaziotan jarrai dezagun; xedetzat baitugu, zinezko negoziazioa eta hitzarmenekiko errespetua lortzea.

Beraz, hona zein izan bide diren hurrengo mobilizazioak:

Hiritarrei begirako bide-hezkuntza eta kontzientziazio kanpaina: Uztaila eta abuztua.

Elkarretaratzeak Eusko Legebiltzarrean.

Elkarretaratzeak Lehendakariaren zein hiriburuetako Ertzain-etxeen aurrean.

Gatazka Europako Legebiltzarrera helaraztea: urriko lehen astea.